



EBANJELIOA: BEHAR DUGUN BERRIA

“Aita, barka iezaiezu, ez baitakite zer ari diren”

2022ko apirilaren 10a
Erramu Igandea (C)

Lukas 22, 14-23. 56. (*Gomendagarria da Jainkoaren Pasio osoa astiro irakurtzea*)

“Buru-hezur” zeritzan tokira iritsirik, bertan gurutziltzatu zuten Jesus, bai eta bi gaizkileak ere, bata Jesusen eskuinean eta bestea ezkerrean. Jesusek honela zioen: “**Aita, barka iezaiezu, ez baitakite zer ari diren**”.

Soldaduek Jesusen jantziak banatu zituzten, zotz eginez.

Herria begira zegoen. Agintariek, berriz, Jesusi burla egiten zioten, esanez: “Besteak salbatu ditik; salba dezala bere burua, Jainkoaren Mesias, hautatua, baldin bada”. Soldaduek ere irri egiten zioten; ondoraturik, ozpina eskaini zioten eta esan: “Juduen errege baldin bahaiz, salba ezak heure burua”.

Honako idazkun hau zuen buruaren gainaldean: “Hau juduen erregea da”.

Zintzilik zeuden gaizkiletako bat Jesusi irainka ari zitzaion, esanez: -Ez al haiz, bada, hi Mesias? Salba ezak heure burua eta salbatu gu ere!

“Ez al haiz, bada, hi Mesias? Salba ezak heure burua eta salbatu gu ere!”

GURUTZILTZATUAREN AURREAN

Jose Antonio Pagola

Tenpluko segurtasun-indarrek atxilotu du, eta Jesusek ez du jada inolako dudarik: Aitak ez dio entzun bizitzen jarraitzeko agertu dion gogo; ikasleak ihesi joan dira, nor bere segurtasun bila. Bakarrik dago. Bere egitasmoak huts egin duela ikusi du. Zain-zain du heriotza.

Zirraragarria da bere azken orduetan Jesusek agertu duen isiltasuna. Halere, ebanjelariak jaso dituzte gurutzean jaulki dituen hitz batzuk. Oso laburrak dira, baina lehen kristau-belaunaldiei asko lagundu zieten Jesus gurutziltzatua gogoratzeko, maitasunez eta esker onez.

Gurutzean josten ari diren bitartean jaulkitakoak dakartza Lukasek. Dardararen eta oinaze-garrasien artean, lortu du Jesusek hitz batzuk esatea, bihotzean duena agertzeko: «**Aita, barka iezaiezu, ez dakite-eta zer ari diren**». Horrelakoa da Jesus. Berei eskatu izan du «maita ditzatela etsaiak» eta «egin dezatela otoitz pertsegizailleentzat». Eta orain, bera doa hiltzera etsaiei barkatuz. Barkazio bihurtu du gurutzeko bere heriotza.

Gurutzean josten dutenentzat Aitari egindako eskari hau, lehenik eta behin errukizko keinu goitarra da, eta konfiantza Jainkoaren atzemanezineko barkazioaz. Hauxe da Jesusek gizadiari utzi dion ondarea: Ez galdu sekula Jainkoarekiko konfiantza. Jainkoaren errukiak ez du azkenik.

Markosek, berriz, gurutzean josi dutenaren oihu dramatiko hau dakarkigu: «**Ene Jainko, ene Jainko! Nolatan utzi nauzu eskutik?**» Bakartasun eta abandonu handienean jaulkitako hitzak dira; egundoko zinezkotasuna adierazten dute. Jesusek sentitu du bere Aita maiteak utzi egin duela. Zer dela eta? Jesus kexu da Aita mutu gelditu delako. Non da? Zer dela-eta dago mutu?

Jesusen oihu hau, historiako biktima guztien oihuarekin bat dator: hainbat eta hainbat injustizia, abandonu eta sufrimenengatik Jainkoari argibide bat eskatu nahi dio; gurutziltzatuaren ezpainak Jainkoari erantzun bat eskatzen ari zaizkio heriotza baino haratagorako: gure Jainkoa, zer dela-eta uzten gaituzu eskutik?, ez ote diezu sekula erantzungo errugabeen oihuei eta lantuei?

Lukasek Jesusen azken hitza ere jaso du. Bere herio-larria eta guzti, azkeneraino eutsi dio Jesusek Aitaganako konfiantzari: «**Aita, zure eskuetan uzten dut neure espiritua**». Ez ezerk, ez inork apartarazi ahal izan du Jesus Aitagandik. Aitak arnastu du bere espirituaz Jesus bizitza guztian. Bere egitekoa bukaturik, Aitaren eskuetan utzi du dena Jesusek. Aitak bere isiltasuna hautsi eta piztu egingo du Jesus.

Aste Santu honetan, Jaunaren Nekaldia eta Heriotza ospatuko ditugu kristau-elkarteek. Orobat egin ahal izango dugu gogoeta, isilik, Jesus gurutziltzatuaren aurrean, bere hilzorikoan Jesusek jaulki zituen hitzak sakonduz.